



# KUDEAKETA TXOSTENA

## 2011

Lugaritz Pasealekua 27  
20018 DONOSTIA  
Telefona: 943 31 70 22



Kudeaketa txosten osoa, 2011ko Txostenarekin eskuragarri dago gure web orrian [www.geroa.es](http://www.geroa.es)

## FINANTZA MERKATUEN EBALUAKETA ETA ENTITATEKO INBERTSIO ZORROA

2011. urtea txarra izan da Entitateko kudeaketan, emaitza %4,199an negatiboa izan da, zorroko epe laburreko eta errenta aldakorreko zati bat epe mugako zorrori aldatu izan arren. Azken hau 2010ko abenduan %5,56tik ekitaldi honen bukaeran %25era ailegatuz.


Errentagarritasun konposatua Erakundearen sorreratik %5,44an kokatzen da.

Aktiboen bilakaera, bereziki abuztutik, oso negatiboa izan da, bigarren merkatuko kredituen itxiera eman baita, eta arrisku primen igoera orokorrek, errenta finkoko posizioen prezioa jeitsiarazi dutelako, eta hauek zorroaren ia %72koa suposatzen dutelako.

Errenta aldakorreko maila zorroaren %20 inguruan murriztua mantendu arren, bere jarrera ezkorrak, europar merkatuetan kotizatzen duten enpresen prezioen ia etengabeko errotzearekin, Entitateko errentagarritasunean eragina izan du.

Entitateak zorroaren %2,87 ORZA AIEIn inbertitua du. GEROA PENSIOAK BGAEk euskal enpresa alorreko sozietateetan inbertitzeko eratu zen entitatean %50ko partaidetza du.


Zorroaren dibertsifikazioaren urteko batzbestekoa 2011. urtean zehar honakoa izan da:



Aktibo motaren arabera, GEROAren zorroan bakoitzak honako errentagarritasuna izan du:

Errenta Finkoa merkatuan: -%2,38, Epe mugako Errenta Finkoa: +%0,95, Epe laburreko inbertsioak: +%0,36; Akzioak: -%1,01, Inbertsio Fondoak: -%0,90 eta Deribatuak: -%1,04.

## DATU EKONOMIKOAK



Partaidetza Balioa	13,93 ¤
2011. urteko errentagarritasuna	-%4,20
Hasieratik konposatutako erre.	+%5,44
2011rako helburua	+%2,40 (inflazioa)
Ondarearen gastu Ratioa	%0,19*

(\*%0,31 IKE eta AKEetan komisio inplizituak barne)

## ERAKUNDEAREN KOLEKTIBOA

2011/12/31an 20 sektore eta 32 enpresa erakundearen baneratu daude. Sektoreen banaketa hurrengo taulan aurkezten dena da:


Metala	Beira	Larru arloko merkataritza	Errepid. Zeharreko garraioa
Zeramika	Eraikuntza	Metal arloko merkataritza	Lokalak, ikuskizunak eta kir.
Zuraren industria	Papera	Garbiketak	Bulego eta despatxoak
Garraio-kudeatzaileak	Altzariak eta osagarriak	Hornitegiak	Merkataritza orokorra
Okindegiak	Ehun arloko merkataritza	Fruten handizkariak	Tit. Publ. Kirol Instalazioak

Bestalde, bazkide eta onuraduren banaketa honakoa da:

JARDUNEKOAK	ETENEKOAK	PASIBOAK	ONURADUNAK
123.381	113.242	1.521	464



## ENTITATEAREN ONDAREA




## EKARPENAK

BAZKIDE BABESLEAK	BAZKIDE ARRUNTAK	EKARPENAK
11.687	123.381	90.533.216

## PRESTAZIOAK

2011. urtean zehar hurrengo prestazioak sortu dira:



Ordaindutako prestazioen guztizko zenbatekoa 27,11 milioi eurokoa izan da. Honez gain, ekitaldi berean, errentengatik hartutako konpromisoa 5,58 milioi eurotako da.

## ENTITATEKO ESTATUTU ETA ARAUTEGIAREN ALDAKETAK

2011. urtean zehar Entitateko Arautegiaren 5, 7.2, 8, 9.2, 9.3, 9.4, 9.C, 10.4, 10.5 eta 11.1 artikuluek aldatu dira: